

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

238n. zenbakia
epailla-martia 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE




BAKEGINTZAN:

Ez daigun egin bake txarrik mai
onetan,

ZORNOTZAN,

Izenpetu zan bake-ituna
(Karla'tarren II Guda)

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



3

U

jq

1998-99 IKASTURTEA

IIE

OGEITAMAİKAGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 18.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

31² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 18.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

4



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

EUSKALERRIKO ZINEGOTZIEN BATZARRA

Otsaillaren seigarren eguna, egun pozgarria izan da euskaldun guztientzat eta benetako poza batez be abertzaleentzat: Ainbeste aitazen izan da aspaldion, zergaitik edo agaitik, Euzkadi edo Euskalerrria, baiña beti izen orren barruan iru errialde, Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba dirala eta Euskalerrria zazpi errialdek osotzen dabe (aspaldion sei dirala diño, Napparroa osoa bat lez artu ezker). Eta euskaldun guztion sendi aundi bat lez geure burua artzen

jakin, sei edo zazpi errialdeetako errikideen abotsa entzun barik? Ez egoan biderik abots ori entzuteko, euskaldun guztiak iñoiz be batzen ez ziralako, orretarako erakunderik ez egoalako. Gaurtik aurrera ezin esan olakorik: Or dago erakunde barria, euskaldun guztientzat dan erakundea.

Egia da batzar orretara ez dirala joan euren burua abertzale ikusten ez dabenak. Eta orreixek dira jokabide onen aurka agertzen diranak. Abertzale ez diranakaz, aberria

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

dogun ezker, bearrezko gauzea zan guztion erakunde baten alkartzea eta zeregin ori ezin bete izan dabe ez Jaur-laritzak, ez Aldundiak eta ez Errialdeetako batzarrak.

Baiña orain bai, Euskalerrri osokoa dan erakunde bat daukagu, otsaillaren 6n. egunean Iruña'n Euskalerrri osoko ziñegotzi alkartuak sortu dabena.

Ba-dakigu alkateen edo ziñegotzien batzar ori gure antxiñako ekanduetan ondo sustraitua dana, baiña aldakuntza bat dauka gaurko batzar onek: Euskalerrri osokoa dala, lenagokoak Errialde bakoitxean bertakoak ziran, ez iñoz Euskalerrri osokoak. Aldakuntza ori errez onartzekoa da. Guztiok gara euskaldunak, erri bat, eta guztiok bear dogu errian sustraiak dauzan agintaritzta bat.

Orrez gaiñera aspaldion bakerako bideak artzen diardugu eta benetako bakea nai dogu, gure Erriaren arazo mingarria zuzendu ta bideratuko dauan bakea. Baiña zelan egin benetako bakea Erria erri lez artu eta beraren barruko guraria bete barik? Eta zelan Euskalerrri osoaren guraria

maite ez dabenakaz, ezin osotu aberriaren erakundea. Alderdi guztietakoak maitatu bear dabe Euskalerrria eta gero sortzen dan erakunde orren barruan artuko dira erabagiak aurrerantzean nondik nora jokatu jakiteko.

Erakunde barria or dago, itxaropenerako bide bat ba, bakerako urrats bat, ez daigun galdu aukera au, egin daigun benetako bakea.

OLAZAR' tar MARTIN' ek



ARANA ETA GOIRI' TAR SABINO' RI

—BURUZ ITZALDIA

SARRERA

Euskalerrria oso zaarra da, bai gaztea be, bere beti berriko etorkizunean; baina burutapen edo gogamen (concepto, idea) guztien antzera, nai etorkizunean edesitik zear guk gaur agertzeko, nai gure garaian etorkizunerako, gure ARAU zaarrak JAINKOA'ri begira, argi gertatu edo prestau, bai bete be, egin bearra daukagu, gure NORTASUNA argi eta garbi agertu daiten beste NORTASUNEN aurrean.

Erri zaarra izateagaitik, oitura edo etika arlotako neurrian, naiko egoki ibili bear izan dabe gure aurrekoak: izakerako itxuran, izkuntza eta Nortasunak eskatzen dauan arauen beste arlo guztietan, izateko, gu agertzen garan Nortasunekin besteen aurrean agertzeko; bai indarrean be, ainbeste burrukaren artean erriari aurrerantza bultz egiteko, iraun daiten eten barik JAINKOA'ren billa erriaren ardurak ondo bete'az.

Baina goazen begitzen edesti aldetik, zer gertatu-iakun, ain makal agertzeko azkeneko denboraldi onetan.

XV gizaldian asiko gara, Erromatarrak, Godoak eta Mauri edo Maomatarrak atzean itzita, baina "Concilios de Toledoko" begi bistatik galdu gabe, aren arauak izan zirakako gaur arte, gure etzairik aundienak; euren bitartez, eta apurka, apurka, gure legeak indarra galtzen joan zirelako; gure euskaldun nerekoiak edo buru-zale, euren artean andi izan gurean, sartzen asi zirelako. Orren neurrian asi ginan "NORTASUNAREN IL-LARRITASUNEAN".

Il-bizi ortan gagozela, 1789 Frantziko iraultzagaz, Mendebal guztian, berezko erriak menperatu egin-gura ebezan, iztun-arriagarriaren (grandilocuencia) itz' ekin, baita JAINKOA'ren izenean uste eben, euren anditasunaren azpian beste guztiak euki bear dabezela.

Gure erriaren il-zoriko orretan eta euskal- seme guztien artean, bat agertu iakun indartsu!, biotz guztiaz esaten ebana: "EZ DA EGIA ORI", "EUSKADI DA EUSKALDUNEN ABERRIA!".

Euskaldunen artean, dan pare-gabeko seme eta gizon onetzaz, mintzatuko gara gaur emen.

Leenengo: Gizon bezela; Euskaldun legez

Bigarren: Abertzale bezela

Iruigarren: Kristau lez

GIZON BEZELA:

Alango maitale eta Nortasun aundiko gizonak epai-

tzeko, asko jakin bear da: ulertze edo ezagutzaren arloan; sendimen; samurtasunean; gaitasun edo trebetasunean (capacidad); oituran edo etikan; eta onen balioa gai guztietan, bere bizi denborako giro-garaian.

Nik, beren buruz dakitena irakur bidetik eta gizon jakintsuen esanagaitik, esango neuke: sendimen (sensibilidad), goi mallakua izan zala; eta ezagutzan edo ulermen (inteligencia) arloan bardin.

Oneri gaineratu ez gero, erriak euki eban Kristautasunezko sinismen sakona, bai larritasuna izaeran, edo il-zorian nortasunen aldetik, eta gudan bete-beterik sartuta egon zirelako: berez agertzen dira, garaiko gora-beregaitik, alangoko nortasun aundibateko gizonen indarrak, lotuta egon baziren lez, arri-yaurtalitakotan bezela, ari-mako borondate onak aleginduta, bere indar bereziak askatasunaren billa: "ULERMENA", "TREBETASUNA", eta bai "OITURAZKO edo ETIKAKO arloan BALIOA". Guztiorreri gaineratu egin bear dautsagu, gaur esaten dan "ALDI-ONA" (suerte); baina nik, ez dot sinisten aldi-oneko edo txarrekoa esanaz, bai alderantsiz, sinismen eta ardura aundiko senitartean edo etxe baten jaio zala. Orrela, eta diruaren ardurarik euki ez-arren, borondate aundienetako bat bearda, berak egin eban guztia, ain egoki ta goiko mallan argitzeko.

Euskal erriari, ulermen eta sendimen aundiko, goiko mallan izan diren gizon/emakumeen artean, asko izan dira azkeneko zazpireun urte ontan; batzuk, erriaren lan eginaz; baina geienak, etsaien artean sartuta ondo bizi izateko gogoekin (en la fastuosidad de la discriminación).

Itaun bat agertu iakon Sabino'ri onen arazo guztien aurrean: "Jainko nintzan ni Zeure il-orduban Eltzeko?".

Baina laster erantzuna: "Bedeinkatua izan daitela, nire ABERRIA ezagutu neban EGUNA, eta betirako esker-onak, arrotzasuneko illuntasunetik atara nabena".

Orregaitik beren sinis-betea: "JAUNGOIKOA eta LEGE ZAARRAREN" bidetik, "GU EUZKADIRENTZAT eta EUZKADI JAUNGOIKOARENTZAT", "EUZKADI, EUSKALDUNAREN ABERRIA DALAKO"

Garbi ikusten da, JAINKOARI eskeini eutsola bere bizitz osoa ERRIAREN bidetik.

Or erri baten, beren goi-mallako maitaleak. Kontuan eukiten dituanak, bizitz au, ez dala bakarrik jaio eta erio-tzea; artean zeozertarako agertu gariela baizik. Eta ori, gatx ulertzen da, ordezkariaren arloan jokatu ezik.

Sabino'ren aita: Arana eta Ansotegi'tar Santiago; eta

ama: Goiri eta Atxa'tar Paskuala, eskondu ziren 1844'an Azaro'ko 23'an. Zortzi seme/alaba euki zituen, iru mutil eta bost nezka. Sabino izan zan danetatik azken jaio zana eta bera bakarrik, Albian euki eben etxe-bizitz ederrean, gaur "SABIN ETXEA" deritxona 1865'ean Urtarrilla'ko 26' an.

Jakin-naian, Arana eta Goiri'tar en etxeko abertzale-tasun giroa nolakoa izan zan, euren seme/alabak ain arnas sakona artzeko, joan gaitez, ia zer esaten dauan Sabino'ren arreba Paulinak, beren oroimeneko idatz lanetan, iru edo lau gauza artuaz: "Karlisten matxinadarako, nire aitak asko lagundu eban". "Denbora gutxi barruan, itzi eban itxas-untzien egitea". "Uribarri'tar Generala, bere etxean euki eban ostonduta". "Aita, joan zan zu-izkiluak erostera Inglesen errira, eta here zarpeletik ordaindu eban 50.000 ogerleko Karlisten borrokarako". "Zelan zabaldu zan, danok atzerrira joan ginela, etxean urten barik egon ginelako. Egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendulako otoitz egiten leenengo mesatan". Esan bear da, aita Abandoko alkatea izan zala, eta Gernikako batzarrean eskubidedun bertatik.

Ikusten dan lez, etxeko arnasa obiagoa ezin izan, eta or berarentzat erro zintzo eta sakonak, nai Kristau lez, nai abertzale lez.

Ikasteko bidean, 1873' garrenean bigarrenko karlista gerla zala-ta, bere ama eta anai bigaz joanda, aita Inglaterra aldetik zu-izkiluak erosten dagoela, Baiona'n egin ebazan 1873-74 arteko ikasketak. 1875-76 artekoak, Donibane Loitzunen, azken azterketak Ondarribin osotuz. Amaika urtegaz Bilboratu eta 1876' garren urteko ikastaroa Orduña'ko jesuitetan asten dau; eta emen, 1881'ean azkeneko ikastaroa amaitzen dauela, oso txarto gertatu zan osasunez, azkeneko Sakramentuak artuaz il-bizian egon zalako, eta urrengo urte bietan ez eban ezertxo be ikasi. Orko azterketak, ogean egoala egin bear zan zituan.

Amazazpi urteko zala, aita eta anai bat il iakozan.

1833'an, bere ama eta anai Koldobika'rekin, Bartzelonara joan zan, Filosofia, lege-jakintza eta Elertia ikasteko; bai bitartean euskera be, Arturo Kanpion'ek atera berri eban "Gramatika Baskongada'rekin", len, Van Eys olandarraren Iztegi eta Gramatika'rekin egin eban lez. Berak be, orrez gain, 1885'an ogei urte daukazela, naizta geroago argitara emona izan, "Gramatika Elemental del Euskera Bizkaino", 200 orrialdekoa, osotu eban. 1888'an Otsailaren 11'an, ama il zan, eta ortik aurrera, ez ebazan legezko ikasketak aurrerantza eroan, aita eta amaren esanak utzi' az; beren gogapenak alde-batetik zendagilenak izan zirelako; beste aldetik, euskera ikasten eta ikertzen biotz guztiaz egin ebalako. Uztailan, Bilbora etorri ziren anai biok, Koldobika eta bera.

Ortik aurrera il arte, ikaragarritzko lana egin euskun lumaz eta mingañez.

Badago beste arlotxo bat oso maite euki ebana, eizan izan zan. 1889'an eiz-izkilu on bat erosi eban Paris'en, beren arreba Paulinak esaten dauan lez: "ondo zainduta euki ebana", eta beren lagun onakaz, Amoroto'ko Matiaz (txakur-zaina), Gernika'ko Urberuaga'tar Agustín, Lekeitio'ko Guillermo eta Amoroto'ko beste bat'ekin, neguan, askotan joaten ziran basurdea'reneizara. Paulinak esaten dau: eizatik etorri eta bere-ala deituten ebala abere-iltzaille baten-bateri, basurdeen aragiak baserritar'en artean banatzeko. Osasun aldetik, oso ona izan zala esaten dau Paulinak: "otzik aundienagaz be, eta ain goizetik urtenda, katarro txiki bat be ez ebala artu".

Au da, jakin eta ulertzen dotena "GIZON lez SABINO'ren buruz".

ABERTZALE BEZELA:

Emen abertzaletasuna aipatzen dot, eta ez karlistatasunik, gaur egun, gure artean dagozan zalantzak argitzeko asmoagaz; zein dan eta ez dan egiazko izaeraren esta-baidatik urten ezinik dagozelako, ain-bat eta ain-bat beintzat.

Zalantza ori: jakinaren uts oso-oso da aldebatetik; eta beste aldetik: uts orren jakinean, etsaiak sartzen dauzkuzan ziri-pozoitsuak JAKINDURIZ (sabiamente), gure arteko zalantzaren suak iraun dagien.

Urten bearra daukagu orko zillotik len bait-len. Eta bide ori argitzeko, zer obe jakitea baino: fueristak zergaitik garan, eta karlistak zergaitik izan ginan. "Noiz-arte Fueristak, eta zenbat denboran Karlistek".

"FORUAK", bakarrik esan gura dabe: erri baten jatorritik datoza oitura zaarrak, zuzentasunaren aldetik, "ERRIA BERA DALA TITULUDUN edo ORDEZKARI"; orregaitik, erri-orren arauak zuzentzeko, erritarrok direla NOR, NORTASUNAREN ARDURAK diralako.

Azken baten, erri orren jabetasuna dalako; eta ez, erdi-mendeko azken 700 urte oneitan, JAINKOA'ren ordezkari izan-gura izan diranak, egin daben naaste-borraste au, inor ez daiten argitu, arrantzan, eurok obeto egiteko. Baina badakigu JAINKOA dala izadiaren SORT-ARAZLE, eta here legea danontzat bardina dala. Eurok alderantziz, ez dabe gura erriaren nortasuna; "EURENA BAI!". Orregaitik OR! giza arteko sasi-jainkotasuna.

Orren oituraren menpe?

Ordua da izartzeko, eta gure ardurari ordea emoteko!

Begitu or, zergaitik izan bear garan FUERISTAK; nai izan orren orde, itz ori zar geratu dalako, gaur beste itz berezi batzuk ibili-arren: "ERRI-ERABAKIA" (auto-determinación), ala "ASKATASUNA edo JABETASUNA" (independencia), laurak bardin esan-gura dabelako.

ERRIGINTZA

Eta danori: FORU'en itzak, berezitasuna bakarrik emoten dautsolako NORTASUNARI da!

Karlistak izatea, zergaitik eta noiz-arte?: 1700'ean Espaniako erreinua, borrokaren bidez, V Felipek artu ebenetik aurrera, ia gureak eginda egon ziran; ez-gendulako jakin, nola euren indarrak menperatu, eta aren arau-zapaltzaileak gure nortasunaren aurka, zelan geratu; naita gure erriak, borrokaren bidez batzuetan eta jakituriz besteetan alegin asko egin arren, etorkizunerako ikuspegi baltza argitzen zan 1830'ra arte. Emen, il-zorian egon zanean VII Fernandok, anaiari mostu eutson bidea errege izateko, bere alaba II Isabel zana izendatuaz. Anaiak, V Karlos M.. Isidro, alegin guztiak onez amaituta, gertan asi zan bere koinata eta lobiaren aurka 1832'an. "Gerla ortarako ezkeini geuntson euskaldunak laguntza, gure foruak zaindu egitearen" ordez. Gerla ori, Bergara'ko besarkada zikin baten amaitu zan 1839'an. Eta 33 urte geroago, ostera be alegindu zan VII Karlos; 1872-1876'an amaitu zan borroka au, eta ortik aurrera ez eben euskaldunak, zergaitik karlistaren izena aurrerantza eroan, eta gutxiago arrazoirik! (or Sabinok, 11 urte euki zituan).

Baina zori txarrez Errekete eta Karlistaren itxaropeneko bidetik iraun eben ain-bat, eta ez jakinak daukan indarren bitartez, batzuk Palanjista biurtu ziren, euskal nortasuna galduta, eta besteak or dabiltz, Madriletik aginduta, zer diran jakin barik.

Naaste-borraste au euskaldunen buruetan egotea, zuzperten dauena da, ainbeste borroka egindakoak len eta gaur askatasunaren alde garalako euskaldunak VI gizalditik gaur arte, GODOAK, gure artera sartu gura eben INPERIALISMO naikerien aurka.

Guztiori dator: 586'an, I Rekaredok Leovijildo'en koroia artu ebanean; onek esan eutson "Arrianismoa bertan itxiteko eta Katolizismoa besarkatzeko" Ispaniako batasuna lortu gura ba ebenetik aurrera. Eta ori egin eban 587'an errege zala. 589'an "III CONCILIO de TOLEDO'rako" deitu eben, eta an Arrianismoa ukatu'az Katolizismoa besarkatu eban; andik aurrera elizagaz (Kaizar zaleei, JAINKOA'ren aztarna emateko) batera borrokan egiteko euskaldunen eta beste batzuen aurka, Ispaniako batasuna lortzeko.

Ez da gertaera makalagoa "Cisneros Kardinalarekin bizi egin genduna, bestela NAPARTARRAI itandu!"

Eten-bako ekitaldi gogorrena gaur arte izan zan 1700'ean. V Felipek, borrokaren bidez, danak menperatu gure eban; begitu bestela 1714'an Bartzelonan zer egin eban, gaur-egun aren oroi-menez "DIADA" deritson'ekin. Euskaldunak, aurka eutsien MATXINADA deritxon borrokarekin, baina eurok aurrera egin eben eta or: 1808' an Baiona'ko korteetan; 1812' an Cadiz'koetan; 1837'an Irailako 11' n agert-arazi egin zana Madrilgo korteetan, eta 1839'an Abustuko 31'n, Bergaran, azpikere-

risko besarkada zikin baten bidez legeztatu egin ebena, esanaz: "se confirman los fueros de las provincias vascongadas y Navarra" atzean eta urren, beste geigarri bat ipiniaz: "sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía". Lege orregaz, debekatu egiten euskulako, gure erriak euki eban nortasun aldetik esku-bide osoa, gure JAUN-ZUZENTZAILE'ak autatutzeko.

Eta gu Karlistak zergaitik ez garan izan bear? V Karlos Espainola zalako, eta beren itzaldiak Loredan'eko jauretxean, nai gure foruari zin egin arren, onelakoak izan ziralako: "la monarquía comprende la suprema soberanía política, y por ello representa la unidad nacional". // NORENA? // 1789'an Frantziko iraultzan egin zan ikaragarriko lapurketa erriari, lurraldeak batuaz erregearen agindu menpean, auek ontzat artuta.

Orren erregetzaren legeaz, 26 urte egon ginen euskaldunak jakinen ezean. Eta begitu zer aituko ete zan orduan lege orren gora-beran: JINKOA'ri zin egiteko gure foruak zaindu eta gorde egingo ebazalako, eta beste aldetik euren errege-legearekin ukatzeko, JAIKOA'ri zin eginaz.

Guzurraren arrazoia ardura-bakoa da, eta orregaitik errezena ludi ontan ondo bizi al izateko, JAINKO ak ipini gaitun ardurari begitu barik. Egiaren bidea alderantziz ardurazkoa da, eta orregaitik alegin zuzenak bear dituana, apurka, gauzak ondo eginaz JAINKOA'rengana jasotzeko.

Izaera biak, lan bardinaz egiten dira, baina leenen-goak: ez jakineko bidean, iluntasunean, esturako larritasunean, alkar ikus-ezina eta abar, sartzen dautsela erri bateko jendarte edo gizon/emakumei; eta bigarrenak: lasaitasunean, jendarte ondo-ikusiak izatea, garbitasuna eta erria askatasun osoan kokatzen dauana.

Joan gitezana ba, Sabino, bai gurasoak eta anai arrebak abertzale lez ezagutzera; kontuan eukin da, gaur, gauzak zergaitik diran jakiteko, eskuarte askoz geiago daukagula arrazoi bidez, epaiketa baten iritzia emateko Sabino'ren denboratan baino; orduko erritarren artean, gauzak osoan bakarrik ikusten ziralako, edo gauza gutxi geiago baino ez. KAIZAR-ZALE'ek, jakin bidea moztu egin ebelako, euren sasi-jainko burua erakutsi-naian.

Sabino'ren abertzaletasuna ezagutzeko, 1883'ra joan bear dogu.

Amak, aitaren aginduak, edo bien arteko aleginak, seme/alaben ikasketak maila nagusian beteteko; nai, aita urte bat arinago il zan-arren, Bartzelonara eroan zituan Koldobika eta Sabino. An ikasten dabiltzala 1888'rarte, Koldobikak sartu eutson Sabino'ri abertzaletasunaren indarra. Sabino'k orrez gain, baten baino geiagotan, leenengo abertzalea Koldobika zala esate eban; baina onek, beti esan eban: "aintza oro Sabin-entzat".

Koldobika, Sabino baino urte bi zarragoa izan zan, eta onek sinist-arazi eutson Sabino'ri: Bizkaiak eta Euskale-

rriak eskubide osoa daukiela politika arloan, euskal erriaren jabetasun osoa eskatzeko; 1839'en gerla osteko lege-zapaltzaileak esaten ebana, gu Espaniako erria garella, deseginaz.

Sabinok, oldozmen ori gogoan erabilia, sakon azertuaz, eta Euskalerriko edestia, bai eskubideak be ondo jakinaz zin egiten dau: bere bizitz-osea emango dauela, Euskalerraren esku-bideak Espainolaren menpetik bir-eskuratu arte. Eta JAINKOA'ri bera izan zan osoa eta euki eben guztia ezkaini eutson: "Eun bider ipiniko neban samea marrauzaren azpian Euskalerrigaitik, nire izeneko oroimenaren naia erakutsi gabe", esanaz.

Jakiteko, pare-gabeko abertzale baten buruko mina noraino eltzen zan, artu daigun espetxetik bigaldutako eskutitz au Arantzadi'tar Ingartzi'ri 1895'an Irailako 14' an.

Neure biotzeko gogaidea (correligionario): Ispaniako nekaitza gogorragotzen dabil. Canovas konturatu egin da; eta Robledo'tar Romero lagundu ta kiñatu egiten dau.

Gobernarazi'az, bai Espaniak daukan Euskalerrian fiskalekin itz egin dabe, eta esan dautse: bearrezkoa da nai eta nai-ez BIZKAITAR aldizkaria eta EUSKALDUN BATZOKIJA deuseztutia, kosta aala kosta eta eskuartean daukaguzan indar guztiekin, neu deuseztu!!!

BIZKAITARRA'ren 32'ko zenbakia salatuta (denunciado); 12'an BATZOKIA sarratuta; 13' an batzordea giltzapean: baztartuta dagoz, ni nagoan antzera emen sartu zirenetik. Danari banan bana aitortpena eskatu dauskue. Amar gara.

Uztailako 21 zenbakian orrez gain; gaur birritan auzipetu nabe, oingo bost'garrengo zenbakia-gaitik: leenengo, guda-agintariak; gero, gizarteko legedunagaitik.

Guda'ko agintarien aldetik, oso ilun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, Jainkoa'ren ardura-pean itziten dot ori. Gizarteko-legedunen aldetik, esan leike betirako gura dabela ni emen egotea, 5.000 pezeta eskatzen daustielazeko eskatasunagaitik, eta 2.000 pezeta epaiketaren erabakiagaitik; nik, ez daukat diru ori.

Oin-arte ez dautsat esan berorri ezer, zein dan gaurko gauza. Jakin-arazian berori ipintea da jarraipenean doana: Guda-epaileen aurrean aitortu egin dot, BASO-JAUN'en izena ezin dotela agert-arazi; Donostikoa dala eta bertan bizi dala (Ugerrezko espatiaren esaera ez daiten Espaniako gudalozte osoari ezarri, ortik egurazten dabiltzan gudari-buru batzueri izan ezik); laguntzailea dala eta orregaitik ez dagoala arpededunen zerrendan; eta onei, nire anaiak bigaltzen dautsiela aldizkaria, ardura-duna bera dalako; eta laguntzaileari neuk bigaltzen dautzietela utsaren ordean, euren zerrendarik euki-gabe. Koldobikak bardin autortu dau, erakutsiaz nire ustez, arpededun zerrenda.

Adi egon, ze...: idatz lanen egilea aurkitzen dabiltz, lumak-zakurrak eizaren astarnak-artu egiten dauan

antzera; eta loditu egingo direz aurkitzen ba'dabe, katomtzak egiten dauan.beren arrapetakoakin'en antzera.

Esan leike, emengo Koronelak BIZKAITARRA'ren ale-bat artu dauela, eta kilikagarri, bai iraingarri izen-gabeko orri bat, guda-jaurleriak. Geure etsai gizatxar baten-batek bialdu dautsoz.

10'ean gabaz, guda-buruak gure elkartea oldartzeko asmoa euki eben. Guda-jaurleriak, Bedian egonda bera, gabeko ordu bietan etorri bear izan eban, urruti-idazkintzatik deituta. Orrek arindu eban elkartea'ren itxitura (clausura).

Baleiteke, orko arpededun guztiari ona ditutia adierazteko, eurak jakiteko, ia nor dan BASO-JAUN ori.

Jainkoa-gaitik ez ditela agertu, emengo guda-agintariak oso asarratuta dagozelako; eta goiko aginduak oso gogorrek daukiezelako.

Emen, ez BIZKAITARRA, ez EUSKALDUN BATZOKIJA be, ez dogu arriskuan sartu. Eriotza emoten badautsie be, Espainolen legeen gainetik eta onen gogoan aurka izango da.

Euren asarre-aldiak neure ganera botako dabez. Baina uste-dot Jainkoa neugaz egongo-dala, naikoa eta soberan daukat Beragaz.

Irakurri eiozu eskutitz au Zabalo'ri, eta aolkua emoten dautsut, berarekin batera egin dizuezan itunketak, ia ze egikerak bear diran, Espainol-agintariai, aztarnak galerazteko. Batera esan eiozu bere eskutitza artu nebala, eta irakurtea gozagarria izan dala neuretzat.

Arineketan idazten dot au. Baztartuta nauan lez, ez da izango erreza eskutitz au bigaltzea. AGUR!!

SABIN

Lengo denborak eta gaurkoak ikusten dogun lez, bardin antzekoak dira, gogortasunean izan ezik. Dana dalako, euskaldunak daukan nortasunari, bear dauan jabetasuna ez emotea, eurak agertzearren KAIZAR-JAUN giza artean.

Len egin leikien zapaltza ori, espataren indarraz neurzen zalako arrazoia. Baina gaur, espata ori, jokoz-kanpo geratu da!, eta AMAREN bai SABINO renak, seme alperrak izango gara, ez badogu Euskalerraren askatasuna ondo bideratzen, laster, EUSKADIREN ARGIA IRA-BAZTEKO.

Berak, beti esaten eban: Europa, Amerika eta ludi onen erri guztiak ezagutu bear gaituela, gaur, eten-bako lana erreztu daiten, jabetasunaren billa.

Ori lortzeko gaur, batera joan bear dogu, espatak eta arpeleko indarrak alboratuaz.

Gaur arrazoia bear dalako ludi ontan, askatasuna lortzeko; eta arrazoia gudan da, gure nortasuna gaitik. Ori ikusi bear dabe gure inguruko erriak!

Begitu bestela Sabino noraino eldu zan bideak aurkitzeko. Berak esate eban, dirua eskuratu bear dogula, Euskera egon zan zulotik atarateko; eta orretarako: nekaza-

ERRIGINTZA

ritza aberastu, lan-tokiak ugaritu eta abar; ikastolak ugarri, jarraian eta aldun guztiko abiadan ipinteko. Ez ori bakarrik: Espainolatu gura eban, berak lan egiten ipini eban alderdia. Konturatu gaitezana ba, berak gaurko egoera ikusten ebala. Guk gaur, bai len be, ez dautsagu zin egin kostitutioari; berak be, ez eban egingo, eta egingo ba eban, larri-aldiko zilotik atara arte izango zan. Beren eskutizetatik agertzen dan ulermen bakarra, aber-tzaletasun oso abarats bat da. Eta badauka bai, Sabino zalantzan ipini ebanak, edo ipini eben elkar-teak gaurko denboratan: nai, beren euskerazko arloan; nai beren gogapenengo arloan, nungo parkamena eskatu, lan zakar oiek egin dabezanak.

Sabino, gure ikaragarritzko argia izan zan, eta gaur, gure izar nagusia izan bear da, norkeri uztelak, etzaien ziri-pozoituak, arrotzasunetik sartzen iakuzan asmoak, gurekin ez daukienak zer ikusirik, bastartuaz.

Sabino, etxekoa zan, eta beren senitarteko etxe-nagusiagaitik bizitz-osoan eman ebana; gitxi baino ez direzan eltzen, alangoko lan eta gogo-mailla arloan.

Orregaitik ba, "AINTZA ORO BETI; ARANA eta GOIRI'tar SABIN'entzat".

XRISTAU BEZELA:

Ez dot usten, emen ezertxo be esan bear danik, orduko kristau-giroa egon zana gaitik Euskalerrian eta Sabino'ren senitarte inguruetatik, ain sinismen zakonagaz.

JAINKOA'ri ezkeini eutson bere bizitz osoa, eta orrek bakarrik, naikoa esan gura dauala uste dot.

SABINO'ren LANA'k:

- 1888'an Euskal-zaleen orriak (pliegos Euskera-filos).
- 1888' an Bizkaiko Euskera'ren Gramatika.
- 1892' an Bizkaiko Askatasunagaitik liburua, argitaratzen dau.
- 1895' an Euskal-Abizeneko Itz-etorkien liburua.
- 1896'an Bizkaiko Euskera'ren Idazkera aldetik, Irakas-Aldiak.

EUSKERAZ IDATZI EBANA:

Egutegi Bizkaitarra. Umiaren leenengo aizkidea. Leenengo egutegi Bizkaitarra. Euskaldunen edestia eta izkuntza ren orriak. Euskera'ren Itz-Sustraiak. Aberria'ren babesean be nabarmendu zan, bere eten-bako olerti ekintzagaz.

- 1893'an Garagarrilla'ren 3'an Larrazabaleko itzaldia emon eban.

1893' an Garagarrilla'ren 6' an BIZKAITARRA aldizkaria'ren 1. zenbakia argitaratu dau; 1895'eko Azillean gobernuko agintariak ezeztatu ebena. Sabino'k BIZKAITARRA'rekin irabazi eban EZILKORTASUNA; aldizkari onekin geiago izan zalako Espainako-latterria (estado) eta Canovas del Castillo baino; eurak eta euren buruak garaitu-ezinekoak zirelako euren ustez. Eta Eusko Alderdi Jeltzalea andik aurrera, orren ekintza gaitik BIZKAITARRA deitu zan.

1893'an Uztalilla'ren 31'n, abertzaleen bizitasuna, politiko biurtu zan, Bizkaian jaio-ta.

1894'an Uztaila'ko 15'an Euskaldun Batzokija sortu eban. 1895'an Iraila'ren 12'an sarratu zana, Madrileko gobernuaren aginduz.

1894' an Iraila'ren 12'an Euskaldun Batzokija sarratu zanean, 1895'an Iraila'ren 13'an, batzorde osoa espetxeratu eben Espainiako agintariak, Sabino aurrean dala. Danak bakartuaz. Eta Sabino, Baso-Jaun'en gezur-izena ez esatearren, 1896'en Urtarrilla'ren erdi euki eben.

1897'an Leenengo denboratan "Karliten alderdia eta Euskal Napartarraren lege-zaar edo Foruak" argitu ebazan, karliten alderdiari ikaragarritzko zartada emonaz; Bizkaian 10.000 eta Gipuzkoan 5.000 ale eginda, Euskadik ego-aldean daukazan lau lurraldetan bananduaz.

1897' an Maiatza'ren 2' an argitaratzen dau: "BASERRITARRA" asteroko aldizkariaren leenengo zenbakia. 18'n zenbakirarte iraun ebena, eta ortik aurrera Espainolen gobernuko agintariak debekatu ebena.

Arantzadik diño: 1897'an Uztaila'ren 11'n eta 11'garren zenbakian, iru orri aldeko idatz-lan argitaratu ebana "ERASO-ALDIAREN ONDORIOAK" (efectos de la invasión), naikoa zala BASERRITARRA betikoratzeko (inmortalizar); ararte argitaratu ziran idaz-lan guztiak politikaren-esae-rako arloa baino, azkoz geiago ziralako.

Eta emen, Koldobikak, Arantzadi'tar Ingartziri idatzi eutson eskutitza, esaten ebana: "Aberri au, atzerritarrak zapalduta dagoana". "Aberri au, gaur egun ibili bear dan lez zartada garbian izartu daiten". "Bere lo-aldi abere-antzekoa (brutal) ain dalako, berezkoa dala ezin esan leike, gaisoa baino".

Pizkunde egunean, "FUERISTA EGUN-

- KARIA" espainolen tradizio-zale Euskalerrian izan zanari, izena aldatzea lortu eben eta "JAINKOA ta LEGE ZARRAK" ipini eutson nabarmenduko irarkiakaz (destacados caracteres). Egunkari barri-orrek, erio-tza bear eban, espainolen gogoak jazar-ara-zi (soliviantar) ebelako, Kuba'ko gerla dala-ta. Ogei egun bakarrik iraun eban, bere kide barrian azi zanetik aurrera.
- 1898'an Iraila'ren auteskundeetan, Sabino, Bizkaitik Aldungo ordezkari aukeratua izan zan.
- 1899'an Bagila'ren 4'an, beste aldizkari barri bat sortzen dabe, lenengo "PAIS VASCO" eta gero "EL CORREO VASCO" esan jakona. Sabinok, aldizkari orreri buruz esaten eban: "Abertzalea izango zala, baina belarria erakutsi barik". Ez eban ezertxo be balio bera-gaz ipinitako ardura guztiak, espainolen gobernuak, orko urtean, Irailan ain zuzen, sarratu egiten daualako. Bere-ala, eta 1901'ean beste aldizkari bat argitaratu eban EUZKADI'ren izena euki ebana.
- 1900'an Otsaila'ren 2'an ezkondu zan Atxikallente'tar Nikolasa'rekin, 25 urtekoa. Eta Lourdes'erako eztaibidaldian (viaje nupcial), gaizki gaisotu zan. Sabino'k emen 35 urte ukazan. Adi-erazi merezitakoa da emen, berari egin eutsezan gaitz-etsiak (críticas), eta berak egin eban Bizkaitarraren seme-xeegaitik (pueblo llano) babesa.
- 1901'eko Epaillean, "EUZKADI" aldizkaria argitaratzen dau.
- Irakas-bide bat asmatu, eta `BIZKAITARRA ren idatz-lan oberenak sorta baten batu eta argitaratu ebazan.
- Urrian, "LA PATRIA" agertzen da; bere laguntzaile izango da Sabino, gaisoak itxiten dautson denborarte: Bertatik emongo dautsez bere azkeneko mezuak abertzaleei, eta bertatik be agurtuko dauz.
- Nai, beren neka-ezin egimenaz, Euskara desagertu ditekenaren estutasuna sartzen jako; eta izkuntzagaz batera, enda-lez, erri-lez. Larritasun au agertzen da, 1901'an, Arantzadi tar Ingartzi'ri idazten dautson eskutitzean: "Olan asten naizenean burua erabiltzen, Euskaran, nai endaren arloan, argi ikusten dot, gurea ba-joakula; eta ba-joaku, azi dan gizaldia amaitu orduko. Aukera bakarra diruan dago, eta au, ez da aurkitzen.
- Eskutiz onetan ikusten dogu, Sabino ez zala ameslari bat, ondo baino obeto gogor- ratzen dauzalako, erriak euki ebazan ilbiziko arazo larriak, bere izkuntzaren etorkizunerako, bai erria'ren bizitzarako.
- Orregaitik Sabino, Euskera'ren idazkera-gaitik arduratzen da, ego aldeko lau lurraldean idazkera bateratuaz.
- 1902'an Maiatza'ren 25'ean, Estatu Batuetako lendarikariari bialtzen dautso eskutitz bat, Kuba ko ugartearen askatasuna emotea gaitik. Urrut-idazlanak ez eban eskutitz-ori bialdu, eta gainera salatu egin eban Espainiako gobernariaren aurrean. Orregitik, espetxean sartu eben Maiatza'ren 30'ean, eta askatu Azaro'ren 8'an.
- 1902'an Azaro'ren 21'ean, atxilotzeko arriskuan egon zalako, Balkaroz edo Orreaga'tik muga aldatzen dau Iparraldeko Euskalerrira, bere lagun minaz Oiartzun'tar Prantzisko'rekin.
- Erria desagertzeko arriskuan egon zalako, gogoetari agertzen da, eta asmatzen dau alderdia espainoltzea, ia orko bidetik aal izaten bada Euskara eta erriaren indarra sendotzea. Asmo orren gogapena izkutan eukinaz, berari alderdikideak uste osoa emon-arte, eta ainbeste bider eskatu eutsoena. Zori-txarrez, oso gutxi baino ez eutsoen ulertzen. Eta ez eban eskatzen besterik gaur garana baino; nai ta Kostituzioa ontzat artu ez arren.
- Canovas'ek, arrazoia euki eban, Sabinok urrin ikusten ebala ezanaz. Orduko denborretan, Sabinok ikusten eban nire ustez espataren arrazoia amaitu egin bear zala noz edo noz. Begitu or bestela, indarraren askeneko aleginak egin eta gero, gaur argi geratu da, egiaren arrazoiaren bitartez izan behar dirala arrazoiaren bideratzeak.
- Nik uste dot, Bera pozez beterik egongo-dala, anai-arte-ko alkartasuna lortzen asi garalako! !
- Ikusten dogun lez, SABINO pare-gabekoa izan zan, eta noski, gure indar-barriztu'aren AITA!!!
- ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1999'an URTARRILLA'ko 27'an

1.998N URTEKO EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok:

Beste urtebete bat igaro eta beste barri bateri asiera emon dautsagu, millurteko azkenengo urteari, izan be, eta gure oitureari jarraituz igarotako urtean egindako ekintzen zeatzak azalduko ditugu.

EUSKAL IKASTAROA

Lengo Urrilla'n euskal ikastaroari asiera emon geuntsan, eta oikoa dan lez, ikasleen kopurua polita izan da. Ona emen, aurrera jarraitzeko adoretzen gaituan poztasuna.

EUSKAL ASTEA

Igaz be oiko Euskal Astea Bilbao'ko Eskolapiotarren ikastetxean atondu genduan Azilla'ren 30etik Gabonilla-ren 3'garren arte. Gaiak eta emoilak oneik izan ziran:

Azilla'ren 30'garrean:

Arrese Beitia Olerkari.– Zubiri'tar Iñaki.

Gabonilla'ren lenengoan:

Koplak eta koplariak.– Legarreta'tar Asier.

Gabonilla'ren 2'garrean:

Dabadie Euskaltzale ta idazle.– Latxaga Jauna.

Gabonilla'ren 3'garrean:

Euskera ta Euskerazaintza.– Murua'tar Jose Mari.

Entzuleen kopurua polita izan zan, eta gaiak ardura andiaz jarraitu ebezan. Emondako itzaldiak "ZER" gure aldizkarian agertuko dira.

Eta ereti au ustiatuz, Eskolapiotarra gure eskerrik beroenak adierazoten dautseguz.

IPUIN SARIKETA

Aspaldiko oitura dan eta elertiarentzat onuragarria dan ekintza onetara, dei egin genduan Gabonilla'n, urrengoko sariakaz: 50.000 - 40.000 - 30.000 - 20.000 eta 10.000 laurlekoak. Sarituak idazle oneik izan dira:

1'goa: Murua'tar Jose Mari

2'gna: Aurre Apraiz'tar Balendin

3'gna: Arrinda'tar Anes

4'gna: Legarreta'tar Asier

5'gna: Etxaburu'tar Asier

Ipuin oneik "ZER" gure aldizkarian agertuko dira.

EGUTEGIA

Igaz aurtengo egutegia atondu genduan, beti lez, Bizkai Bilbao Kutzaren babespean. Oraindiño alerik ez dabenak, eskatu begie B.B.K.'ko idaztegiatan. Egutegi onen alkartelana Olazar'tar Martiñ'ek egin dau.

"ZER" ALDIZKARIA

Oi lez, bizkaieraz idatzitako gure illerokoa argitaratu dogu. Eta barrero be, gaurko eretia ustiatuz, salatu bear dot Bizkai'ko euskereari egiten yakon zapalkundea, Euzkadi'ko erakundetik asita lenengoak dirala gure euskera errikoa eriotzera galduz. Urteak eta urteak dira Bizkai'ko euskereari bizi bearreko baldintzak uko egiten dautsoela, agintarien ardura eza ergelaren artean. Beste urtebete bat igaro da gure euskerea zapalduago ikusten dogula, eta barrero be gure biotz-larritasunaren artean egoera negargarri au salatu bear dogu etsipenik andienaz...

Baiña "Euskerazaleak" irauan dagian arte, bizkaieraz dogun aldizkari bakar au, ataratzen jarraituko dogu, baita gure alperriko salaketa egingo be.

Eta eskatzen dautsuegu, Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean argitaratzen dogun aldizkari oneri, zuen idazlanak bialtzeko, danen lanak eta aalegiñak bearrekoak diralako.

LAGUNTZAK

Gero ta geiago zuen laguntzak bearrekoak dira. Urterik urtera eralguntzak gora egiten dabe, eta gure bazkideen urteko saria bearrekoen egiten yaku. Gure ekintzak zuen laguntzaren aiñakoak izango dira, eta augaitik zuen urteko saria bialtzea ez aztu .

Eskerrak emon bear dautseguz Bizkai'ko Aldundiaren Kultur Saillari, Bilbao'ko Udalari, eta BBK'ri eta Eusko Jaurlaritzari euren laguntzagaitik, gure urteko ekintzak egiteko bearrekoak diralako.

Eta beste barik biotzez agurtzen zaituet.

ZUBIRI'TAR IÑAKI
LENDAKARIAK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKERA ETA EUSKERAZAINTZA

GAI ZERRENDA

0. Itzaurrea.

1. Euskal aztarnak eta euskera.

Euskeraren antziñatasuna.

2. Euskeraren lekua ludiko izkuntzen artean.

3. Euskeraren osotasuna. Euskalkiak.

4. Batasunaren arazoa.

1968'an, Batasuna ala ebakuntza ?

Euskerazaintza-Euskeraren Erri Akademiaren sorrera

5. Bizkaiera galtzaille.

6. Euskera neurtitzetan. Barne mintzoa

1998ko Abenduaren 3an itzaldia Bilbao'n, Eskolapioen Ikastetxean, "Euskerazaleak" elkarteak eratuta.

0. ITZAURREA

Aurten 30 urte aundi bete dira, euskeraren batasunari buruzko batzarra Arantzazu'n ospatu zenetik. Emen gaudenok ondo asko dakizkigu an gertatutakoak eta ondorioak; ondorio txarrak batez ere bizkaierarentzat. Beraz, ez dut ezer berririk esango, baiña izan bedi nere itzalditxoa denon artean ausnarketa bat egiteko, eta bizkaieraren alde lanean gogo onez jarraitzeko. Ni giputxa naiz, badaukat lotura sendoa ordea bizkaierarekin, emaztea lurreta'koa bait dut. Orregatik Euskerazaintza'ren barruan pozik aurkitzen naiz, maixu bizkaitar auen ondoan.

Emen jorratuko dudana, sei zatitan banatu dut.

1. Euskal aztarnak eta euskera. Antziñako altxor eder bat daukagula etxean ikusirik.

2. Euskeraren lekua ludiko izkuntzen artean. Au ere arrigarria. Euskerak ez bait dauka inguruan sendi jakiñik. Gaurko izkuntza aberatsenak latiña dute askok ama. Guk berriz ez dakigu gure izkuntza noiz eta nola sortu zen.

3. Euskalkiak kontuan izanik, euskeraren osotasunaren garrantzia adierazi nai dut.

4. 1968'an, dakigun bezala erabaki batzuk artu zituzten Arantzazu'n. Eta Erri agintariak indarrean jarri. Ori zela eta "Euskerazaintza" sortu genuen, betiko bide zaarari eusteko asmotan.

5. Ondorio negargari bat: Bizkaiera galtzaille,

komunikabideetatik eta ikastetxeetatik kanpo utzi bait dute.

6. Bukatzeko, "Barne mintzoa" izenburuarekin, neurtitzak euskera gai dudalarik.

1. EUSKAL AZTARNAK ETA EUSKERA

Gaur Euskal Erria duguna, orain 300 milloi urte itxaso omen zen. Gero ugarte batzuk asi ziren agertzen, Aia-ko arria, Gipuzkoa'ko Oiartzun'en, garai artako aztarna dela diote adituek. Gero milloi urte askoren buruan, orain 30 milloi inguru edo, beste mendiak azaldu ziren: Pirine katea, Aralar, Aizkorri, Urbasa, Ernio, Gorbea eta gaiñontzekoak. Eta era berean, Himalaya, Andes eta Alpes mendiak.

Orregatik, ori jakinda ez da arritzekoa kontxak eta maskorrak mendi orietan topatzea. Karaitz arri biurtutako bizidunen oskol (cáscara) edo ezurrak ditugu. Fossilak ain zuzen.

Aintzina-aintziñean, Euskal Errian ere - Kontinentearen zati bat izanik eguraldiak aldaketa aundiak izaten zituen. Aldi epelak eta gero izozte ikaragarriak, loditasun aundia izaten zuen jelak lur gaiñean. Lau izozte luze eta gogorak ezagutzen dira zientziaren esanetan: Gune, Mindel, Riss eta Wurn. Izen aukerak Alpes etako erreka-ibaien izenak dira. Obekien ezagutzen denak, Wurn izenekoak, 70.000 K.a. 9.000 urteraino iraun zuen. Eta, noski, gure Euskal Erriko mendiak ere izotzez estalita egon ziren. Milla eta berreun metrotik gora ez zuen elurrik kentzen. Eta neurri orretako izoztea zen garaiean, barenen gizakirik Euskal Errian; 150.000 urteko aztarnak aurkituak dira

Zientziak ere ziurtatzen digu, gizona ez dela beti bizi izan munduan. Lau milloi t'erdia urte inguru bai omen dira, zientzilariak diotenez, izakia munduan sortu zenetik; eboluzio luze baten ondorioz. Zutik ibiltzen eta lanabesak egiten asi zen, eta izkuntza bera ere, izakiarekin batera eboluzio baten ondorio da. Euskera ere ortxe dago, noiztik, nola eta non bereziki sortua dugun ez badakigu ere. Eta zalantzarik gabe esan dezakegu, ordungo euskera ulerteziña izango litzatekela guretzat; aldaketa aundiak izan dituelako, bai ordea antz eman euskera zela, esaten digu On Joxe Migel Barandiaran'ek.

EUSKAL-ASTEA

Euskal aztarnen ikerketa, Euskal Erria'n, dakigun bezala, irukote ospetsu batek asi zuen 1916ean. Talde ospetsu orri "tres tristes trogloditas" deitzen zioten, esan-gigo digu askotan, irripartsu, On Joxe Migel Barandiaran ek, gure ataundar apaiz jakintsuak. Eta beronekin irukotea Telesforo Aranzadi, bergararrak, Barcelona'n Unibertsidadeko "Antropogia Fisikan" katedradunak Eta Eugenio Eguren, Oviedo' ko Unibertsidadeko Geologia-ko katedradunak osatu zuten. Eguren bereala il zen; eta Aranzadi 1945ean. Geroztik On Joxe Migel' ek jarraitu zuen etenik gabe il zen arte, 100 urte beteta. Eta gaur, zorionez, ba-dugu gure artean gizon aundi aien maillako jarraitzaille jakintsua, beste batzurekin, Jexux Altuna ain zuzen, Biologoa, eta Paleontologian Doktorea, Arantza-di taldeko zuzendaria.

Esandako oriek aipatu baditut ere, esan bearra daukat ordea, nere lantxo apal onen elburua ez dela paleontologia eta antropologia. Or daude jakintsuek orretarako. Nere gaiaren gunea EUSKERA izan naiko luke, eta ezinbestekoa iruditu zait aurreko lerroetan esandakoaren azaldu bearra, garai eta inguru giro aiek gure izkuntza-ren sorburu eta koka leku izanik. Denbora zaar-zaar aietan asita, ordungo biztanleekin batera, gaurko euskera eboluzio baten ondorio omen dela, esan dugu. Aitortu bearra dago ordea, zein izkuntz izan zuen oiñarri euskerak, ori gaur arte ez dugula argitzerik izan.

Zientzi gizonen ikerketak euskal jatorria Cromagnon izakiarekin lotzen dute. Goi Paleolitos Aroan, esango digute (8.000 urte). Cromagnon ori euskaldun izakia izatera eldu zen pixkanaka-pixkanaka, esango digu On Joxe Migel' ek. Urtiaga' ko artzuloan (Deba'n) agertu zen buruezurrak ondo argitzen omen digu aldaketa ori; eta Jexux Altuna'k auxe esango digu: Urtiaga'n aurkitutako buruezurra, Cromagnon jatorrikoa da, brontze arokoa, 4.000 urte, eta gaurko euskal gizakiaren antzekoa.

Azken batean, beste galdera au ere egin liteke, gure aurreko Cromagnon izakiaren jatorriagatik: Nondik etorri ote ziren gure Pirine mendira? Bada, agidanez Afrikatik, orain 500.000 urte. Ekialdeko lur aldeetatik bane-na esaten digu Juan Luis Arsuaga paleontologo jakintsuak, "1997ko Premio Príncipe de Asturias" izenekoa jaso zuenak.

Ondorioz, auxe diot: Gure asaba zaarren mintzoa, ainbeste urtetan zear bizi-bizirik jarraitzea, gure Erri txiki onetan, ez al dugu arrigarria?

Ikusi dugu, bada, pixka bat orrelaxe, euskeraren ain munduko izkuntzen artean.

Ni Urkiola'ra joatzen naizen bakoitzean, bein eta

berriz, ez naiz aspertzen ango ikuspegi zoragarriarekin.

Orain jarraiean aipatuko dudana, "Euskeraren lekua ludiko izkuntzen artean" eta "Euskeraren osotasuna-Euskalkiak" astun xamarra da. Baiñan, zillegi bekit berriro ere zuen aurrean jartzea euskeraren ikuspegi zoragarria da eta.

2. EUSKERAREN LEKUA LUDIKO IZKUNTZEN ARTEAN

Euskeraren lekua ludiko ogei izkuntz famili edo taldea osatzen dutenen artean kokatzen da. Orietako bat, beraz, euskera dugu. Eta izkuntz famili orretatik abiatuta, iru milla izkuntz bai omen dira munduan.

Ikus ditzagun zeintzuk diren ogei oriek, eta beraien-gandik sortutako izkuntz batzuk:

1. Altaikoa: (Turkiera, mongoliera, e.a.)
2. Amerindiarak.
3. Andamanesikoa.
4. Australiakoak.
5. Austro-asiarrak (Malasiarrak, munda).
6. Bantuarrak.
7. Dravidikoak.
8. Eskimalenak.
9. EUSKERA.
10. Hotentoteenak.
11. INDOEUROPARRA.
12. Japonekoa.
13. Kamitiko-semitikoak. (Hebreaiera, arabiera, aramaiera)
14. Kaukasiakoak. (Georgiera, suaniera, txetxen, e.a.)
15. Korearrena.
16. Malasia-Polinesia.
17. Paleo-siberiarrak.
18. Sudanekoak.
19. Txino-indiarrak. (Txinakoa, Vietnaneakoa, Tibe-to-birmanierak)
20. Uralikoa. (Estoniera, hungariera, laponiera, e.a.)

IZKUNTZEN ERABILLERA

Aurrerago esan dugun bezala iru milla izkuntz bai omen dira ludi osoan. Orietako batzuren iztunen kopurua auxe dugu:

Alemaniera:	105.000.000
Arabiera:	130.000.000
Bengaliera:	130.000.000

Errusiera:	150.000.000
Españiera:	210.000.000
Indiera:	350.000.000
Ingelesa:	320.000.000
Poniera	110.000.000
Portugesa:	120.000.000
Txinera:	800.000.000

Zenbaki auek ez dira gaur-gaurkoak, eta onez gero geituz, aldatuxeak egongo dira.

2.1 INDOEUROPEAR IZKUNTZAK

Euskera indoeuropear izkuntzak baiño zaarrago omen da. Beraz jakingarri deritzaigu onek aipatzea:

1. Albaniera.
 2. Armeniera.
 3. Baltikoak: (letoniera, lituaniera)
 4. Esaviarrak: (errusiera, servo-kroata, bulgariera, esloveniera, txekiera, poloniera, ukrainiera, daniera...)
 5. Germaniarrak: (norgegiera, suediera, islandiera, ingelesa, alemaniera,...)
 6. Italikoak: (latiña, eta ortik sortutako: portugesa, gaztelera, katalana, frantsesa, italiara, e.a.)
 7. Indo-iraniarrak: Indierakoak: (sanskritoak). Iranierak: (afganiera, pertsiera, kurduera..)
 8. Zeltikoak: (irlandiera, eskoziera, bretoinera..)
- Ori ikusita, nola ez esan altxor eder bat daukagula etxean !

Izkuntza oriek denak baiño aurregotik datorkiguna.

3. EUSKERAREN OSOTASUNA: EUSKALKIAK.

Euskeraren osotasuna aipatu dugu, eta esan bearrik ez dago, osotasun ori euskalkiak betetzen dutela. L.L. Bonapartek egindako lanaren arabera, euskalkien sailkapena onela dugu:

1. BIZKAIERA: EKIALDE'koa (Markina) MENDEBALDE'koa: (Arratia, Arrigorriaga, Bermeo, Gernika, Gaminiz-Plenzia, Orozko, Otxandiano) GIPUZKOA'koa: (Bergara, Lenitz).
2. GIPUZKERA: IPARRALDE'koa: (Azpeitia, Hernani, Tolosa). EGOALDE'koa: (Zegama) NAPARRROA'koa: (Burunda, Etxarri Aranaz).
3. IPARRALDEKO NAPARRERA GARAIA: ARAIZ'koa (Intza) ARAKIL'goa (Uarte Arakil). BAZTAN'goa: (Elizondo). BORTZIRIETAKOA: (Bera). GIPUZKOA'koa: (Irun, Oiartzun). ULTZAMA'koa (Lizaso)

4. LAPURTERA: Sara, Ainhoa, Donibane Loizune
5. EGOALDEKO NAPARRERA GARAIA: EKIALDE'koa: (Artzibar, Auritz, Egues, Erro, Olaibar) ILTZARBE'koa: (Gares). Mendebaldekoa: (Oltza, Zizur)
6. ZUBERERA: ZUBEROA'koa: (Atharratze). ERRONKARI'koa: (Bidankoze, Urzainki, Uztarroz).
7. EKIALDEKO NAPARRERA BEERA: ATURRI'koa: (Beskoitze, Urketa). GARAZI-AMIKUZE'koa: (Amikuze, Arberoa, Bardoze, Garazi).
8. MENDEBALDEKO NAPARRERA BEERA: AEZKERA: (Aezkoa). BAIGORRI'koa: (Baigorri). LAPURDI'koa (Uztaritze, Lekorne). ZARAITZIERA: (Zaraitzu).

PEDRO IRIZAR'en galdeketatik, euskalki bakoitze-ko iztunak:

Bizkaieraz: 200.480. Gipuzkeraz: 200.050. Ipar Naparroa Garaieraz: 51.000. Ego Naparroa Garaieraz: 440. Lapurteraz: 22.970. Sortaldeko benaparreraz: 23.760. Sartaldeko benaparreraz: 22.790. Zubereraz: 11.095. Euskal Erriko euskaldunak: 533.495 Gaur aldatuak egon daitezke zenbaki auek, baiña gutxi gora-beerra, orietek ziren orain ogeitamar urte, batuaren arazoa sortu zenean.

4. BATASUNAREN ARAZOA

Batasuna ala ebakuntza?



Euskeraren antziñatasuna, aberastasuna eta osotasuna, aurreko ataletan ikusi dugu. Ainbat urtetan zear armtzen eta etsaien erasoaldiak gaindituta, gure baserrietako sukaldeetan eta gutxi batzuk landuta, -eta or elizgizonek lan aundia egin dute- gutxien uste genuenean etxetik sortu zaigu osotasun ori arrixkuan jartzen duen jokaera. Erabaki batzuk artu ziren, 1968an ain zuzen, eta gero Erri -Agintariek indarrean jarri zituzten gure euskeraren aztarnak eta euskalkiak kontuan artu gabe, eta batua izenarekin, ez dakigu zer nolako izkera berri bat sortu. Eta orrela dijoaz gauzak.....

Ogeitamar urte aundi bete dira Arantzazu'ko batzarra euskeraren batasunari buruzkoa ospatu zenetik

An artu zen bideari, Kardaberaz jakintza Bazkuna-koek eta Euskerazaleak Elkartekoek, uko egin zioten. Beste arrazoi batzuren artean, bat auxe:

Artzen zen bide berrian, Lapurtera zaarra izango zela oinarri edo, aurkeztu zuten batzuk, ordun artekoa zapuztuz, "euskera batua" izenekoa lortzeko. Eta orretaz bizkaiera eta gipuzkera orduan %80 erriaren aotan erabil-

s1



NAFARRERA (GARAIA)

Euskalki- mugak
ProbiMzi- mugak

Mapa: Azkue -ren sailkapena .

liburuko 120. orrialdeko mapa egokitua.

tzen zirenak, bigarren maillako edo, ez dakigu non gelditzen ziren aurrerantzean asmo berri orietan.

Arrazoi "biologiko" bat edo beste ere entzuteko aukera eman ziguten. Arrazoi "biologiko" izen xeble ori, ordungo euskaldun berri gazte batzuren iritziei eman zioten. Donostia'ko areto batean auxe zioen ogeitabi urteko gazte batek, euskeraz, erderak gurutzatzen zuen euskera mailla batean:

"Euskera kultur munduan sartu bear bada, gure joskera berezia, eta gure adizkera (nor-nori-nork) uztea obe". Gaur gizaki berari entzun berria diogu beste auxe: "Azkarregi egin dira gauzak". Ordunik aide eder bat ere ba du gazte zen arek; gaur Gipuzkera osotua edo landua darabil ezpañetan, ordungoa baino dexente obeagoa-berak "batua" deitzen badio ere- Eta asko ikas dezake gaur-gero ere, oraindik, artu duen bidean. Azken batean, berak orain ogeitamar urte arbuatutako Lekuona "Zaarraren" eskutik indarrean zegoen bidea. Ainbeste urtetan landutako bidea.

Jaun orrek, orain, "Batuari" leporatzen dizkio akatsak, eta akats oriek berriz, euskera erabiltzerakoan sortzen diranak izan. •"Batua" ez bait da izkuntza.

Gaur egun "euskera batuaren" esparrua deitzen zaion orretan, batasunik eza ain zuzen gero eta nabarmenagoa da. Aditzari buruzko erabakia artu zenean, lapurtera zaarra ere ez zen kontuan artu, eta geroztik gipuzkera nagusitu da –azken batean errian sustraitutako euskera–, komunikabideetan eta ikastoletan. Baiña nolako euskera mailla darabilkiten batua izenarekin, ori besterik da.

Ondorioz euskaldunen arteko %40k, gutxi gora beera, Arantzazu'ko batzarraren garaian itz egiten zuten bizkaiera baztertuta dago, jakinarazbideetatik eta ikastoletatik. ETBk euskerazko meza Bizkaitik ematen duenean, an agertzen den apaizari eker, bizkaiera –literario maillako bizkiera– entzuteko aukera izaten dugu Jarrai bide ederra elizak erakusten diguna izkuntzarekiko erriarengan, ain lotuak bait daude euskal arima eta umetan amaren altzoan ikasitako euskera!

Batasunik eza aipatu dugu, batuaren esparruan. Noski, agiri agirian bait dago. Batetik euskaldun zaarrak dabilta, eta or, artu den joeraz, bada gipuzkoarrak nagusi. Goierrri'ko euskera, adibidez, sakonekoa eta on-ona baita. Entzungarria benetan. Baiña orri euskera batua deitzea Euskaltzaindia'ren arau batzuk kontuan artzen direla eta, ez dugu uste bidezkoa denik, aldi berean bizkaiera, Mogel eta Lauaxeta'ren bizkaiera, baztertuta gelditzen den bitartean.

Bestetik, "batua" deitzen dioten esparru orretan, beste mailla batzuk sortu dira, euskeraren zuzentasunari bagagozkio. Nolabait esateko, gazteleraren menpeko

motak. Erderakadak jo ta ke nagusi; joskera, iztegia, azentua eta oguzkera arrapatzen dituztelarik. Arrotz kutsua dario batzuetan ETBri.

Ori bai, idazterakoan aozkatzen ez den –H– zuzen-zuzen erabillita. Eta oguzkeran berriz –Z-S-X/TZ-TS-TX– izkien artean ikaragarriko naasketa entzuten dugularik. Entzun ETB. Zuk –H– ez baduzu jartzen berriz, bereak, zureak eta bost ere entzun aal izango dituzu. Azken batean zillegi gertatzen ari bait da oguzkera duten izkiek nolainai esatea. Eta otsik gabeko –H– jartzen ez baduzu, bazoazke aal duzun lekura, bazterren batean baldin bada. Eta Iparraldekoie ez zitzaizkien gauzak erosoagoak jarri. Adibidez: "Hartu" idazten dute, –H–ak beren oguzkeran otsa duelarik. Baiña euskera batuan, "Onartu" idazteko erabakia artu zuten, kontsonante ondokoa delako, –H– izkia bi itz orien arteko loturan kenduz. Bidasoaz andikoek itz orretan, "onartu" —H– gabe alegia, idazten ez den izki bat aozkatuko dizue. Beraz, aozkatzen dituzten H-ak batzuk idatzi egin bear dituzte eta beste batzuk ez...

Eta 1968an, esaten zen: Nola H-a kendu? Angoek erabilli eta aozkatu egiten bait dute. Eta Bizkaia'ko aditza, zer...? Aurreko arrazoi orren arabera.

EUSKERAZAINTZA. Euskeraren Erri-Akademiaren sorrera

Arantzazu'ko erabakien ondoren, On Manuel Lekuona'ren iritzikoak, batez ere Tolosa'ko Kardaberaz Bazkuna eta Bilbao'ko Euskerazaleak, Erri-Akademia bat sortzeko asmoa artu zuten; batasunaren bidean jarraitze-koan aal zen neurrian, baiñan euskeraren zati aundi bat kanpoan utzi gabe. Azken batean bestela nola etsi, eba-kuntza bati batasuna deitzen asi zirenean?

Gerorako trena abiatu eta, Bernat D'Etxepare'ren behenafarrera, Axular'en lapurtera, Pierre Topet "Etxahun"en zuberera eta Mogel'en bizkaiera geltokian gelditzen direlarik, zer-nolako batasuna sortuko ote digute?

Oriek denak orrela direla eta, gu, Euskerazaintza'koak, geure eginkizunari eusteko asmotan gera, aal dugun neurrian noski. Eta zer-nolakoa den gure asmo ori adierazteko, ona emen itz gutxitan gure ikurra:

EUSKERAZAINTZA

ERRIZ-ERRI..

EUSKALKIZ EUSKALKI

ERRI-EUSKERA LANTZEN.

Eta orain, ogeitamar urteren buruan, zillegi bekigu, apal-apal bada ere geure burutxoaz azaltzea, bizirik dugu Euskerazaintza eta, euskaltzaleok jakin ezazuen gure

EUSKAL-ASTEA

berri. Batez ere 1968an jaio gabe edo jaioberri ziñaten gazteok. Orretarako eskubidea badugu. Erri agintariengandik (BOE 45/1981, eta EE.AA. 42 zenb. 84-6-7) ERRI ZUDUZKOTASUNAREN ALDARRIKAPENA / (DECLARACION DE UTILIDAD PUBLICA) jaso bait zuen EUSKERAZAINTZA. EUSKERAREN ERRI- AKADEMIAK.

Eta Euskerazaintza'ren elburuak bere Araudian jasozten dira. Ona 2gn. Araua:

Akademiaren eginkizuna ez da irabazpidetan izango...

Eta elburu nagusia auxe du: EUSKERA –kondairatik dituen oiñarrizko euskalki nagusienetan– zaintzea, bizi-eraztea, indartzea eta ikerketaz aberastea, euskera batua- go lortzearen billa ERRIAREKIN ELKAR LANEAN.

Elburu ori lortzeko onako ekintza auek eramango ditu aurrera, legezko baldintzapean:

1) Euskadi'n bizi den guztiak euskeraz jakiteko eta itz egiteko duen gizabidezko bete bearra adierazten, Euskal Erri osoaren aurrean argiro azaltzen jarriko ditu bere ekintzak.

2) Erki eta Eskualde bakoitzean bertako euskera jakitea bultzatuko du, beste Eskualdeetako euskera ere ikas-tera eragiñez, au bait da biderik egokiena euskeraren egiazko bateratzea lortzeko.

3) Euskerazko irakurketa- idazketak ikasten lagundu-ko dio Erri euskaldunari; eta aldi berean gure izkuntza ikasteko erraztasunak eskaiñitako dizkie Euskadi'ko biztanle guztiei.

4) Euskaldun erria da bere izkuntzaren egiazko irakasle eta zantzaille. Ziurtasun orretaz jabeturik, erri euskaldun orri laguntza eskatuko dio, euskeraren muiña adierazten duten esaera zaar eta egokiak jasotzeko lanean.

5) Itz arrotzak bearrik gabe eta era ez egokian barra- barra sartzearen aurka jokatu-ko du eta aldi berean izkuntzaren joskera eta jatortasuna zainduko ditu indar guztiz.

6) Euskera irakasteko ikastaldiak antolatzen eta buru- tzen, eta euskal irakasle titulodunak gertutzen egiñalak egingo ditu. Eta azterketak gainditzen dituztenei, dagoz- kien gaitasun agiriak eta tituluak emango dizkie. Gaitasuna lantzeko alor onetan, oizko irakasbideez gaiñera, oraingo aurrerapen eta gizarteko komunikabideez baliatuko da.

7) Mailla guztietako irakaskintza- liburuak eta ikaske- takoak idazten eta argitaratzen lan egingo duenez, gai bakoitzean ikasiak direnekin arrem- an estuak izango ditu.

Beste au ere esan bearra dago. Elburu oriek lortzeko laguntza egokiak bearko lir- ateke, eta egiari zor zaionez

gero, jasotzen ditugun laguntzak oso murriz- tak izaten dirala esan bear.

Batasuna ala ebakuntza, izan da atal onen izenburua. Gure uste apalez ebakuntza bati batasuna deitzen diote batzuk. Eta ebakuntza orretan galtzaille nagusi bat, bizkaiera, 1968an 200.000 baiño geiago iztuen zituen.

Bizkaieraren arazoa urrengo atalean azalduko dut.

5. BIZKAIERA GAZTZAILLE

Seireun milla euskaldunetatik, berreun milla bizkaie-raz mintzatzen zen 1968an. Eta artutako erabakiak euskalki indartsu ori baztertuta utzi zuen, eta geroztik era orretan dijoaz ekintzak. Ikastoletatik, erakunde ofiziale- tatik eta komunikabideetatik (ETB e.a.) kanpo utzi dute bizkaiera. Onek gai oso bat eta egun askotakoa bearko luke ondo aztertu eta azaltzeko, eta ori nik gaur emen ezin dezaket egin. Eta itz gutxitan agertuko dizuet, trin-ko-trin-ko eta mamintsu, jakintsu batzuren iritzia.

MARTIN OLAZAR'ek:

Deustu'ko Ikastetxe Nagusian, "Bizkaieraren gaurko egoera" izenburuaz mai- inguru bat eratu zen, orain dela urte batzuk. Eta an itz egindakoaz, Manu Oñatibia'k idazki bat azaldu zuen "Euskerazaintza" aldizkarian.

"Euskerazaleak" elkarteko bazkide eta Euskerazain- tza'ko leendakari den Martin Olazar irakasleak auxe esan zuen: "Bizkaiera galdu arren, ez diola ajola esan du batek eta ori niretzat mingania da. Bizkaiera galtzen badoa, bizkaitarrek bizkaieraz idazten ez dabelako da".

IÑAKI ZUBIRI'k

(Zer aldizkarian) Itxartu zaiteze...! izen buruaz

"Euskerea egoera larrian dagoala, gauza agiria da iku- si gura dagianarentzat. Leku guztietan, baiña Bizkaia'n batez be. Ames egin genduan igarotako aldietan, egunen batean gure eskoletan indarrez irakasten euskuen izkun- tza arrotza, gure ordua etorrita, amaituko zala bein beti-ko.

Oker gengoan, baiña. Abertzaletasunak lortutako Erri-erakundeak, Bizkaia'n, baita beste lekuetan be, erriarena ez dan izkuntza nai-ta nai ez jarri dauskue... Eta au negargarriagoa da, benetan, gure Jaurilaritzak eta bes- te Erri-erakundeak errudun diranean. Gaur Bizkaia'n (gutxi batzuk ezik), umeek ez dabe ikasten euren

inguruko euskerea, beste bat baiño. Umea euskaldun jatorra ba'da, ezin dagike erabilli etxean berbeta ori, eta onen ondorioz, etxean erderaz diardue. Erdalduna ba'da, ikasten dauan euskerea ezin darabilke euskaldun erritarrekin; "El Batuan" irakatsiriko umeak ez dau iñongo eretirik jarduteko benetako euskaldunekin. Bada beste zerbait asarratzen gaituena, eta auxe da: Gure Telebistan ez da iñoiz bizkaierarik erabiltzen. Bizkaierea zapuztua, aztua da, eta bizkaitarren diruak bizkaierea lurperatzeko erabiltzen dira.

Onen ondorioz, bizkaierea aldatz beera doa etenbarik baserrietan txokoratuta (ez dakigu noiz arte, baiña ez luzarorako). Bizkaia'n agertzen diran legezko aginduak, iragarkiak, oarrak, e.a. erritarrek ulertzen ez daben euskeraz kaleratzen dira, eta zer dinoen jakiteko, erderara jo bear dogu.(...)

"ZER" aldizkarian argitaratua. (Ez dut egillearen izenik)

Santi Onaindia, gure euskaltzale jakitsuak aipatzen du bere "Euskal Literatura" liburuko VI alean.

"Bizkaierea ez dogu guk asmau. Or dago Errian. Or dago elerti ederrean. Bi milla urte badira, gitxienez, Bizkaian bizkaieraz egiten dogula eta bi milla urte orreitan, inguruko erriak izan doguzan artuemonak gogoratze-ko or daukagu artutako eta emondako itzen kondaira jakingarria. Nor dator guri ondasun ori kentzera? Nor dator gure amari bizia kentzera? "

Ez dago geiago luzatu bearrik ondo asko ikusteko zer nolako jokabideak dauden bizkaierarekin, eta inork baino obeto zuek bizkaitarrok dakizue ori. Beraz, ez noa geiago luzatzera.

Amaitzeko neurtitzetan egingo dut azkena. "Barne-mintzoa" izenburuaz.

6. EUSKERA NEURTITZETAN BARNE MINTZOA

1. Noizkoa dugun euskera zaarra
gaur guk ez dakigu zinez,
bere kondairan murgildu nairik
gabiltza nai ta ezinez.
Amesti eta irudipenez
baita ere jakinminez,
bide ortatik abiatzen naiz
lantxo apal bat eginez.

2. Euskera dugu geure izkuntza,
Eta geiago, zer esan....?
Noiztik ta nola ez bait dakigu,
noizbait sortua izan zan.
Nola ibilli illunpe ortan?
Ez bait da argirik izan;
mintza bedi, ba, nere biotza
maiteminduaren gisan.

3. Leendabizian oiur bat ote...?
eta agian irrintzia;
mendi, zelai eta itxas aldean
gaurko uztaren azia.
Irudipenez ari naiz eta,
nola ote zan asia
millaka urtez irau duena
gure mintzo berezia...?

4. Gaur diotenez, bertan omen da
sortua beraren kera;
arbaso zaarren ozentasunaz
jaio ote zan euskera?
Nolanai dala urtetan zear
ez digu egin atzera,
Eta or garbi azaltzen zaigu
gure asaben naiera.

5. Izkuntza artean, European barne,
zu omen zera zaarrena,
beraz, au beintzat orrela izanik,
aspaldian duzu leena.
Gaur-gero ere jarrai ezazu,
ez betor zure azkena,
Euskalerriko mintzo maite, zu!
Euskera eder ozena.

6. Euskera eder zure bidea,
sasi arteko gainpean;
bi aldetatik erasoturik
jo ta kearen menpean.
Nai ta eziña, orain ta antziña,
bizi eziñik pakean,
etsaiek gogor beti jo dute
zure etxeko atean.

EUSKAL-ASTEA

7. Erdal eskolan, gurerik ez da,
antxe ume euskalduna,
gurutz aundi bat bere gainean,
pazko gabe garizuma.
Amatxo onaren altzo goxoan
egin zularik laguna,
zuen bakarra, ura zulako!
zigor zuen eraztuna.

8. Eraztunaren ekaizpe ortan
gure kultura zegola,
aurre egiñez ortxe zebillen,
Bai al dakizue nola?
Ba, gure izkuntzak orrelakotan
beti izan du txabola,
babesleku ta suspergarri den
O! Baserriko eskola.

9. Eraso bizi, ta ezin bizi;
Euskerak beti debeku;
Alarik ere baserritarrak
bere osoan beretu.
An-or emengo erasotatik,
Nola ez, bada, jabetu,
beti izan dula baserri zaarra,
suspergarri, bizileku...?

10. Barne muiñetan euskerak deika
egiña dut gaur jarduna;
biotz-begiak goruntz begira,
goian guztion Aalduna.
Arbaso zaarrak an dira baiñan
dantzut beren oiartzuna,
aien mintzoa barnean bait dut,
orrela naiz EUSKALDUNA.

EUSKERA TA EUSKERAZAINTZA

ZER DIRAN AREK ZER EUKEN AREK
GIZATASUN BARRENEAN
BURU BIOTZEZ BARDIN BAGEAK
EUSKALDUN NORTASUNEAN;
EUZKO ITURRI DIZDIRATSUA
BAKOITZAK EUKEN BARNEAN
ORTIK ETORREN ITZ JARIOA
EUSKERAREN OMENEAN

ANDRAZKOARI ANDRAZKO LEGEZ
GIZONARI GIZON LEGEZ
ADIERAZIZ EUREN IZKUNTZA
GIZADIAREN OMENEZ;
GOITIK BERAÑO ESKER ESKUMA
APAINDURIK EDER-MIÑEZ
ARRIMENETAN AURKITZEN DIRA
JAKINTSUAK ZORIONEZ.

EUSKERAZAINTZA GIZA TALDEA
JAI O ZAN EUSKALERRIAN
AMA IZKUNTZA EDERTUTEKO
ARRIGARRIZKO BIZIAN;
BIOTZ TA BURUZ ERNAI DABILTZAZ
EUSKERAREN OMENIAN
MUNDU IZKUNTZ PAREGABIAK
IRAUN DAGIAN LURRIAN

PAULIN

Joxemari Murua'k
1998ko Abenduak 3

GIZA-BIDEA

Lurrean agiri diran gauza guztien artean andrea ta gizona dira izakirik bikaiñenak. Egiz gauza asko dagoz eder ta bearrezkoak bizitzan ta eurak barik ezin bizi izango gintzatekez. Tximiñoiak eurak be, monino monino, busten eta guzti ez dira barregarriak naita mailla guztiz beragoan bizi.

Gizonak, adimen argiz osoturiko izaki bikaiñak, ainbat burrukaldi jokatu bear ditu goizetik eta gabera bere bizitz ederrean. Lenen lenengo ikusten dogunez, giza semearen izatea alderdi bik osotuta dago. Alderdi biok eder ta bearrezkoak dira. Bakoitzak daukaz bere zeregiñak ta bien egiteen bidez bizia osotzen da. Bearrezkoak dira beraz mueta bi orretako eginkizunak biziak lurrean iraun dagian.

Orain goazen alderdi bion zeregiñen edertasuna ikustera. Gorputzak ta gorputzeko eskuak atxurra artzen dabe ta ortarako azur ta aragizko eskuak bear dira argitasunez zuzenduta. Gizonak atxurrez nai goldaz diardu lanean soloan, zelaian nai mendi bizkarrean ta udabarria etorke-ran esku-lan orrek bere ondorena agertuko dau lurrean gainzabal guztien ta mendi bizkarren bikaintasunean.

Udalen goizean goazen baratza ikustera. Eguzkia dizdiz dago ta egin diran lanen frutua dizdiz agiri da. Eskuak etziran geldi egon, gorputza nekatu zan ta ona emen zenbat frutu agiri dan baratz inguru guztian. Porru eder sendoak euren janari gozatsua opaka dagoz, aza-buru ederrak dei dagiela dirudie, piper gorriak urrea eskeintzen dagoz giza-semeen urdailletara. Guzti ori agertu da besoak egin daben lan ugariagaitik.

Aurrean daukaguzan mendi ederrak deika daukaguz ta gizonak ezin itzi lurak, berez, daukan zugatz tantaiaak emoteko almenak landu ta indartu barik. Giza semea goiz doa atxur ta aizkoraz sasiak ausi ta zugatzak apaizduz mendiari bizi barria atera erazoten. Egunetik egunera baso ta mendiak garbituz apaintzen doa. Baso lana eder-lan biurtu da ta izadia irudi barria artzen doa ta eskuak benetan dabe euren eginkizun zoragarria.

Atxur ta golde-lanak eder direlarik, orain goazen arimaren biotz ta gogo lanak ikustera. Lenengo esan bear doguna da arima ez dogula ikusten, baiña bere onurak ederrenak dira gizadiaren onerako.

Arimearen almenak ederrak dira ta onek goratzen dabe notin edo pertsonaren nortasun ta duintasuna. Notiñaren almen ta eskubidea da antxiñako jazoera aundiak gogoratzea, gizonak aldien joan-etorrian egin izan dituan guda ta odol-ixurtzeak, ainbeste negar eragin izan daben jazoera samingarriak, benetan tamalgarriak, baiña bizi izaten irakatsi bear leuskiguenak.



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

Beste almen eder bat gure adimena da. Lur onetan giza-diaren bizian gauza ederrak egin dira jakituriaren bidez. Notin onaren burua bere argitasun guztiekin, iñoiz ez dago geldi. Erri ederrak, eskola bikaiñak, lantegi bizigarriak, beti sortzen diardu munduaren alderdi guztietan gizar-tearen onerako. Giza adimenak jakiturizko liburuz argitu ditu munduaren egalak.

Danez goitik, gizon nai andreak ba dabe beste almen eder bat munduko on guztien buru dana: maitasuna. Maitasuna da urko-lagunaren zoritxarraz arduratuten dana. Maitasunak egin ditu lurrean ezagutu diran egikera on ta arrigarrienak. Au da, biotzak emon dau bere bizia urko-lagunaren aide ta ori da gizarteko egikera jatorra.


EUSKERA LEN ORAIN TA GERO

LENGO ALDIAN GURE IZKUNTZA
BIZI BIZIRIK EGOAN
EUSKAL BASERRI AINTZAGARRIAK
EUTSITA EUREN LEPOAN;
ETSIAIAK, BETI, IZAN EBAZAN
BERE BIZITZ INGURUAN
EUSKAL GIROA ONDATU NAIRIK
ETSAI BALTZEN GORROTOAN

GORA TA GORA ESAN BEAR DOT
BASERRI AINTZAGARRIA
ZURE SUSTRARIAK ZAINDU DABE-TA
EUSKERA AGURGARRIA;
SEME ARGIAK IZAN DITUZU
SENDOTUTEKO BIZIA,
AURRERA BETI BIZITZ EDERREZ
EUSKALDUNEN BASERRIA

GURE IZKUNTZAREN ETORKIZUNA
DARDARAZ DAGO AIDEAN
ZURIZ, GORRIZ TA OLERGIAGAZ
ESTALDURIK MANTUPEAN;
ITZARTU ZAITEZ EUZKO SEMEA
BASERRI ETA KALEAN
AITORREN IZKUNTZ BARDINBAGEA
INDARTUZ GURE LURREAN

PAULIN



EUSKEBTZZLETK

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deusegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO